

# Hau da marka hau!

**Kirolarien izena duten arropa-marken gainean arituko gara jarduera honetan; izan ere, izen bakoitzaren atzean dago istorio jakingarri bat.**

Ariketa hauek dituzu jardueran:

- Audioa entzun eta ulermenarekin lotutako galderei erantzun.
- Entzundako testu-zati bat osatu, esaldirik egokiena aukeratu.
- Kirolari bat aukeratu berarekin lotutako produktu bat proposatzeko.



## Kirolarien arropa-markak

Entzungo duzun irratiko programa honetan, arropa batzuen atzean dauden kirolari ezagunei buruz hitz egingo dute. Entzun aurretik, pentsatu pixka bat edo komentatu lagun batekin gai honen inguruan: Zer kirol-marka ezagutzen dituzu? Badakizu ezer izenari buruz?

Orain entzun irratsaioa eta esan esaldi horiek zein kirolari edo markari dagokien.



<https://labur.eus/G88pB>



	Lacoste	Fred Perry	Stan Smith	Nike
Apustu batean erabilitako poltsa baten materialagatik bururatu zitzaion logoa.				
Garai batean Joko Olinpikoetan irabazleei jartzen zitzaien koroa da bere logoa.				
30eko hamarkadan zeresan handia eman zuen tenisean.				
Batez ere belar-pistetan nabarmendu zen tenis-jokalari hau.				
Amerikarra zen tenis-jokalari hau.				
Hasiera batean, AEBetatik kanpo ez zen oso ezaguna marka hau.				
Marka honek lotura dauka Adidasekin.				

## Testua osatzen

Hemen duzu entzun duzun irratsaioaren testu-zati bat. Aukeratu esaldi egokienak hutsuneak betetzeko.

KAZETARI EMAKUMEA. Eta Fred Perry dugu beste bat: \_\_\_\_\_ hau ere.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Fred Perry, entzule batek ez badaki, esango dugu erramuzko koroa bat dela, sasoi batean Joko Olinpikoetan \_\_\_\_\_, Fred Perryren logoa hori da, Wimbledon, garai bateko Wimbledon logo bera. Eta, bueno, Fred Perry esan dezagun Ingalaterrako tenis-jokalari ezaguna, agian René Lacoste baino hobexeagoa izan zena, baina, batez ere, \_\_\_\_\_, belarretan, Wimbledon: alegia, \_\_\_\_\_ plaza horretan.

KAZETARI EMAKUMEA. Eta orain aipatu behar dugun Stan Smith-i ere \_\_\_\_\_. Esan dezagun Stan Smith Adidas-en azpimarka bat dela.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Adidasek, Europako alemaniarrek ondo ikusi zuten Stan Smith estatubatuarra. Bera hamarkada batzuk geroago, 70eko hamarkadako pistetako erregea izan zen eta, batez ere, hau gehien gailendu zen Estatu Batuetako Irekian eta Davis Kopan. Eta zapatila batzuk, zapatila berezi batzuk diseinatu zituen eta \_\_\_\_\_. Gaur da eguna Stan Smithen zapatilei "tenis" zapatilak deitzen diotena.

### Aukerak

Tenisaren mundutik datorrena

nabarmendu zen etxean

tenisa eta elegantzia uztartzen diren

bere izena ezarri zieten

antzeko zerbaitek gertatu zitzaion

kirolari onenei jartzen zitzaaien ikur horietakoa

## Gure kirolaria, gure marka

Ezagutzen duzue kirolaririk bere izena produktu bati jarri diotena?: arropa, janaria, perfumea...

Demagun zuek ere taldean antzeko zerbaitek egitea pentsatu duzuela: produktu bati kirolari baten izen jartzea. Talde txikitik jarrita, aukeratu kirolari bat gero produktu bati bere izena emateko:

– Idatzi bere biografia laburra lerro batzuetan (gero talde osoaren aurrean irakurri nor den esan gabe).

– Segidan, pentsatu zer produkturi jarriko zenieketen bere izena, eman arrazoiak.

Horretarako, osatu beheko taula.

**Kirolaria:** Iñaki Perurena

**Biografia:** Leitzar honek marka asko ezarri ditu harriak jasotzen: besteak beste, 320 kiloko harria altxatu zuen 1994an. Horretaz gain, Leitzan harriari buruzko museo bat dauka eta aktorea ere bada. Hitz egiten ere oso egokia da, horregatik deitzen diote komunikabide askotatik.

**Produktua:** Edari energetiko bat: Peru

**Logoa:** Iñaki harritzar bat jasotzen

**Azalpenak:** Iñaki Perurena gizon indartsua da eta bere irudia ondo lotzen da edari energetikoek transmititu nahi duten ideiarekin.

Bukatzeko, komentatu talde osoaren aurrean:

- Irakurri aukeratu duzuen kirolariaren biografia (nor den esan gabe).
- Esan zein produkturi jarriko zenioketen bere izena eta zer logo izango lukeen; eman azalpenak.

**Kirolaria**

**Biografia**

**Produktua**

**Logoa**

**Azalpenak**

## Erantzunak

### Kirolarien arropa-markak

	Lacoste	Fred Perry	Stan Smith	Nike
Apustu batean erabilitako poltsa baten materialagatik bururatu zitzaion logoa.	✓			
Garai batean Joko Olinpikoetan irabazleei jartzen zitzaien koroa da bere logoa.		✓		
30eko hamarkadan zeresan handia eman zuen tenisean.	✓			
Batez ere belar-pistetetan nabarmendu zen tenis-jokalari hau.		✓		
Amerikarra zen tenis-jokalari hau.			✓	
Hasiera batean, AEBetatik kanpo ez zen oso ezaguna marka hau.				✓
Marka honek lotura dauka Adidasekin.			✓	

### Testua osatzen

KAZETARI EMAKUMEA. Eta Fred Perry dugu beste bat: **tenisaren mundutik datorrena** hau ere.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Fred Perry, entzule batek ez badaki, esango dugu erramuzko koroa bat dela, sasoi batean Joko Olinpikoetan **kirolari onenei jartzen zitzaien ikur horietakoa**, Fred Perryren logoa hori da, Wimbledon, garai bateko Wimbledon logo bera. Eta, bueno, Fred Perry esan dezagun Ingalaterrako tenis-jokalari ezaguna, agian René Lacoste baino hobexegoa izan zena, baina, batez ere, **nabarmendu zen etxean**, belarretan, Wimbledon: alegia, **tenisa eta elegantzia uztartzen diren** plaza horretan.

KAZETARI EMAKUMEA. Eta orain aipatu behar dugun Stan Smith-i ere **antzeko zerbait gertatu zitzaion**. Esan dezagun Stan Smith Adidas-en azpimarka bat dela.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Adidasek, Europako alemaniarrek ondo ikusi zuten Stan Smith estatubatuarra. Bera hamarkada batzuk geroago, 70eko hamarkadako pistetako erregea izan zen eta, batez ere, hau gehien gailendu zen Estatu Batuetako Irekian eta Davis Kopan. Eta zapatila batzuk, zapatila berezi batzuk diseinatu zituen eta **bere izena ezarri zieten**. Gaur da eguna Stan Smithen zapatilei "tenis" zapatilak deitzen diotena.

## Transkripzioa

KAZETARI EMAKUMEA. Kirol-markako jantziek jarraitzaile ugari dute munduan zehar, eta garbi ikusten da marka horien atzean, sorreran, kirolari ezagunak agertzen direla. Lacoste marka dugu ezagun-ezagun horietako bat, kirol askorekin lotu genezakeen marka, zalantzarik gabe. Nor genuen ba Rene Lacoste?

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Ba René Lacoste tenis-jokalari bat Parisen jaioa, Ingalaterrarako egindako bidaia batek begiak zabaldu zizkiona eta, bueno, handikan hartu zuen, antza, dotoreziaren esentzia eta 30eko hamarkadan tenis-pistetan protagonismo handia eduki zuena.

KAZETARI EMAKUMEA. Tenislari ona bai, baina egia esan René Lacostek gaur egun ezagunagoa dugu sortu zuen arropa-markagatik. Lacoste izena krokodilo bati lotuta agertzen zaigu.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Eta badu historia horrek. Hori ez zitzaion egun batetik bestera jaiki eta krokodilo bat diseinatzen hasi edo Afrikako bidaia batetik etorri. Kontua da apustu bat egin zuela bere kide batekin eta galdu; baina apustu hartan zeukaten zorro bat edo poltsa bat krokodilo-larruarekin diseinatutako poltsa bat egin zuten apustu eta horrek eman zion ideia tenisa utzi eta urte batzuk haratago ba krokodiloa soinean arropa-marka bat sortzeko.

KAZETARI EMAKUMEA. Eta Fred Perry dugu beste bat. Tenisaren mundutik datorrena hau ere.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Fred Perry, entzule batek ez badaki, esango dugu erramuzko koroa bat dela, sasoi batean joko olinpikoetan kirolari onenei jartzen zitzairen ikur horietakoa, Fred Perryren logoa hori da, Wimbledon, garai bateko Wimbledon logo bera. Eta, bueno, Fred Perry esan dezagun Ingalaterrako tenis-jokalari ezaguna, agian René Lacoste baino hobexeagoa izan zena, baina, batez ere, nabarmendu zen etxean, belarretan, Wimbledon: alegia, tenisa eta eleganzia gehien uztartzen diren plaza horretan.

KAZETARI EMAKUMEA. Eta orain aipatu behar dugun Stan Smith-i ere antzeko zerbait gertatu zitzaion. Esan dezagun Stan Smith Adidas-en azpimarka bat dela.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Adidasek, Europako alemaniarrek ondo ikusi zuten Stan Smith estatubatuarra. Bera hamarkada batzuk geroago, 70eko hamarkadako pistetako erregea izan zen eta, batez ere, hau gehien gailendu zen Estatu Batuetako Irekian eta Davis Kopan. Eta zapatila batzuk, zapatila berezi batzuk diseinatu zituen eta bere izena ezarri zieten. Gaur da eguna Stan Smithen zapatilei "tenis" zapatilek deitzen diotena.

KAZETARI EMAKUMEA. Eta kirol-munduko markak aipatzen ari garen honetan, Nike eta Michael Jordanen artekoa ere hortxe daukagu.

JOSEBA URKIOLA KIROL-KAZETARIA. Ba 1984. urtean, bai pelikuletan bai Estatu Batuetatik etortzen ziren hainbat produktu eta ikus-entzunezkoetan, Nike zapatilek ikusten ziren eta horretara zegoen diseinatua estrategia komertzial hura, zapatiletara. Asko saltzen zituzten Amerikako Estatu Batuetan, baina munduan zehar ez zegoen hain zabaldua. 1984. urtean Nikeko presidentek erabaki zuen gazte batengan apustu egitea. Gazte hura Ipar Karolinan jokatzen ari zen gazte unibertsitario bat zen: Michael izena eta Jordan abizena zeukana.

KAZETARI EMAKUMEA. René Lacoste frantsesa, Fred Perry britainiarra, Stan Smith, Michael Jordan... kirolari ezagunak guztiak eta kirol-marka ezagunei lotuta geratu direnak.